

Kontzeju

Oñatiko Udal aldizkaria | 2018ko uztaila | 285. zenbakia

www.oñati.eus



Berba Oñati



@BerbaOñati



oñati@oñati.eus



oñatiirratia

DELIA



~ OÑATIKO HAMAIKAKOA

Euskaraldiaren herriko enbaxadore taldea aurkeztu da



Argazkiak: Bernat Alberdi

Euskaraldiko hamaikakoa

Oñatin EUSKARALDIaren enbaxadore lanak egingo dituen hamaikakoa aurkeztu dute. Ahobizi edo Belarriprest izateko konpromisoa publiko egin dute

Euskaraldia-k baditu enbaxadoreak Oñatin. Ekimenak iraungo duen hamaika egunetan *Ahobizi* edo *Belarriprest* rola hartzeko konpromisoa publiko egin duten hamaika herritar dira: Eider Quintas, David Vernaza, Ana Mari Liziaga, Euxebi Osa, Xabier Infante, Markel Irizar, Irati Barrena, Itziar Altuna, Jose Zubia, Nieves Gomez eta Oihana Diaz.

Hamaikako horretako kide bakoitzak beste hamaika lagun izango ditu Euskaraldian parte hartzeko gonbita. Orduan 121 *Ahobizi* eta *Belarriprest* izango ditugu herrian, eta 121 lagun horiek beste hamaika lagunekin euskaraz egiteko hautua egingo dute, eta hala lortuko dugu *Euskaraldia*

arrakastatsua izatea.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra Euskal Herri mailan egingo den ekimena da *Euskaraldia*. Hamaika egunez hiztunak aktibatzea, hizkuntz ohituretan eragitea eta, azken batean, euskararen erabilera sustatzea du helburu ekimenak. Horretarako, bi rol nagusi proposatzen ditu Euskaraldiak hamaika egun horietarako: *Ahobizi* eta *Belarriprest*.

Hamaikakoaren aurkezpena izan da Euskaraldira begira egin den lehen ekitaldia, baina beste batzuk ere etorriko dira herria girotzeko asmoz. Herritar guztiak daude gonbidatuta ekintza hauetan eta, bereziki, udazkenean ospatuko den Euskaraldian parte hartzera.

» Zergatik erabaki duzu 'AHOBIZI' edo 'BELARRIPREST' izatea?



NIEVES GOMEZ
'BELARRIPREST'

Jaengoa naiz sortzez eta lau urte daramatzat euskara ikasten. Oraindik ezin dut den-dena euskaraz adierazi, baina nahi dut jendeak niri euskaraz egitea, eta horregatik parte hartuko dut *Belarriprest* gisa Euskaraldia ekimenean



ITZIAR ALTUNA
'AHOBIZI'

Euskararen erabileran eragin nahi du Euskaraldiak, eta ekimen interesgarria iruditzen zait. Nire hizkuntza naturala euskara izan da betidanik, eta egunerokoan ere euskara erabiltzen dut; beraz, gustura ariko naiz *Ahobizi* rolean.



DAVID VERNAZA
'BELARRIPREST'

Euskaraz bizi den herria da Oñati; familian, lagunartean, lanean... Guretzat euskara da integrazioa. Horregatik ari naiz euskara ikasten, euskaltegian, lagunekin... eta Euskaraldian ere parte hartuko dut, eta espero dut jende asko animatzea.




EUXEBI OSA
'AHOBIZI'

Egia da Oñati herri euskalduna dela, eta aukera gehiago dagoela euskaraz egiteko, baina, hala ere, erabileran eragin beharra dagoela uste dut, eta Euskaraldia bezalako ekimen batek lagundu dezakeela uste dut.

EUSKARALDIA

ez galtzeko gida laburra

**AHOBIZI**

Euskaraz hitz egingo diot ulertzen duenari, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

**BELARRI-
PREST**

Egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskaraz egitea nahi dut

Zer da Euskaraldia?

Euskal Herri osoan egingo den ekimen zabala da. Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen du, Euskal Herriko erakunde publiko guztien eta euskaigintzako eragile nagusien babesarekin.

Noiz egingo da?

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Hamaika egun horietan euskara ahalik eta gehien erabiltzea da erronka.

Zer da helburua?

Euskararen erabileran eragitea. Euskaraz hitz egiten edo ulertzen dugun guztion artean euskaraz egitea. Inertziak apurtzea eta gure arteko hizkuntz-ohiturak aldatzen saiatzea. Euskara ulertzen duen jende kpurua uste duguna baino askoz handiagoa dela jabetzea, eta, beraz, euskara gehiagotan erabil dezakegula konturatzea.

Zeinek parte har dezake?

16 urtetik gorako herritarrek.

Nola parte hartu?

Ahobizi edo **Belarriprest** bihurtuz:

Ahobizi: ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erdaraz erantzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet; **Belarriprest:** egidazu euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erdaraz erantzungo dizut, baina zuk niri euskraz egitea nahi dut.

Nola eman izena?

Udazkenean zabalduko da izena emateko aukera

Euskararen erabileran eragitea da helburua

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jalone San Miguel Ugarte

MAPFRE
ONATI

Telefonoa

Oñatira iritsi zenekoa

Conchita Igartua: “Askotan ordubete itxoin behar izaten zen konferentzia lortzeko”



Ia ia telefono mugikorren menpeko bihurtu garen hauetan, atzera begira jarri gara, artean Oñatiko etxe gehienetan telefonorik ez zegoen garaira; Madrilekin edo beste hiri batekin telefonoz hitz egiteko, agian, ordubete itxoin behar izaten zen sasuera. Ondotxo gogoratzen du Conchita Igartuak. Telefonista lanetan jardun zuen Oñatin egon zen lehenengo zentralitan, Kale Zaharreko 3 zenbakian.

Zein garaitan aritu zinen telefonista lanetan?

1950 eta 1958 artean. Hamabost urterekin hasi nintzen lanean. Lehenengo bi urteetan errekadista edo mandatari lanetan ibili nintzen eta gero telefono zain.

Lehenagotik ere bazegoen telefonoa Oñatin, ezta?

Lehenengo telefonoa 1909an jarri zuten, udaletxeko behesolairuan. Eva eta Ramonita Agirre izan ziren aurreneko telefonistak, eta hauen anaia Jaime ibiltzen zen errekadista lanetan.

Gero, zehazki ez dakit noiz, Kale Zaharreko 3 zenbakian ipini zuten Oñatiko zentralita, Leturiatarren farmazia gaine-

Conchita eta Felipe Anton Igartua anai-arrebak, Kale Zaharreko telefono zentrallean, 1957an

	
ARRIZABALAGA Aroztegia	PAKITA Altzariak
Berezaio Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SILKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIJA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

IRAZOLA Okindegia	
Ostiral, asteburu eta gai egunetan baserriko agia, egurrezko labeon egina	
Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754	

an, lehenengo solairuan, eta ni hantxe hasi nintzen lanean. Etxebizitza bateko bi gela ziren; batean telefonoen kuadroa eta bi kabina edo lokutorio zeuden, eta bestean zerbitzuburua edo arduraduna egoten zen.

Zenbat abonatu edo telefono zeuden garai hartan Oñatin?

Ehun pasatxo ziren ni sartu nintzenean. Lantegi eta tailer inportanteetan, komertzioetan eta etxe partikular batzuetan ere bazegoen. Ni irten nintzeneko asko ugaritu zen abonatu kopurua.

Eta zenbat telefonista?

Eguneko 24 orduetan egoten zen norbait; bat goizez, beste bat arratsaldez eta hirugarrena gabaz. Zerbitzuburua ere egoten zen bulegoko orduetan, eta errekadista ere bai.

Ni sartu nintzenean Ramonita zen arduraduna, eta gero Carmen Korkostegi. Nik beti gabeko txandan egin nuen lan, 21:00etatik 08:00etara. Egunez Korkostegi ahizpak egoten ziren telefonozain.

Zein izaten zen zuen lana?

Errekadista edo madatariaren lana telefonemak banatzea izaten zen; telefonorik ez zuten herritarrentzako abisuak ziren, halako orduan lokutoriora etortzeko, dei bat zutelako.

Telegramak ere egoten ziren. Oñatin ez zegoen telegraforik, baina Bergaran bai, eta handik telefonoz esaten ziguten telegramaren edukia, guk idatzi eta gero hartzaileari eramaten



genion.

Eta 'giro' edo igorpen telegrafikoak ere egoten ziren. Gogoan dut, harrobira lanera etorri ziren galiziarrek soldata jasotzen zutenean igorpenak egiten zituztela etxera. Soldadutzan zeuden gazteendako ere bidaltzen ziren.

Telefonistaren lana, berriz, kuadroa zaintzea izaten zen. Norbaitek deitzen zuenean, abonatu horren argia pizten zen, norekin hitz egin nahi zuen esaten zigun, eta guk bien lineak lotzen genituen kuadroan. Norbaitek kanpora deitu nahi bazuen, konferentzia eskatu behar izaten genuen Bergarako zentralitaren bidez; Oñatik Bergararekin eta Arrasaterekin bakarrik zeukan linea zuzena.

Konferentziak lortzea ez zen erraza izango, ala?

Ez horixe. Garai hartan oso linea gutxi zeuden eta batzuetan ordubete itxoin behar izaten zen Madrilera edo beste hiri-bururen batera deitu nahi baze-

Telefono zentralita bateko bi langile 1960ko hamarkadan

“ Herriko arrain saltzaileak egunero etortzen ziren enkarguak egitera telefonoz

“ Damian Lizaurren istripuaren berri emateko Durangoko alkatearen telefono deia neuk jaso nuen. Kolpe handia izan zen



Conchita Igartuak ia hamar urtez lan egin zuen Kale Zaharreko telefono zentralitan



Etxe-Mundi
Hotela Jantzeria

Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com



nuen.

Lan asko izaten al zenuten?

Bai, batez ere egunez. Gogoan dut, adibidez, arrain-saltzaileak goizero etortzen zirela enkar-guak egitera, Ondarroara eta beste leku batzuetara. Enpresek ere asko erabiltzen zuten telefonoa. Gabaz lan gutxiago egoten zen, jakina. Somier moduko bat geneukan telefono-kuadroaren ondoan; lo egoten ginen eta norbaitek deitzen bazuen, iratzarri eta atenditu egiten genuen.

Herriko kontu guztien berri izango zenuten telefonistok, ala?

Zeinek zeinekin hitz egiten zuen bai, baina ez genituen elkarriketak entzuten, aukera izan arren.

Gogoan dut, Elias Galdosek askotan deitzen zuela Parisetik edo Madrildik. “Deittu Etxe-nausira eta bittartian ipini idazu Bittorianokin (idazkaria)”. Halakoetan zain egon behar izaten nuen, elkarriketa bat agurtzera zihoanean beste linea sartzeko, deia moztu aurretik. Baina, gainerakoan, diskrezioz jokatzeko zuten.

Dei berezirik gogoratzen al duzu?

Behin, elurte handia zegoen gau batean, partikular batek deitu zuen, taxi eske. Emaztea erditzen ari zen, baina konplikatu egin zen, eta ospitalera joan beharra zeukan. Bati deitu, besteari deitu, baina inor ez zen ausartzen kotxea hartzera eguraldi harekin. Azkenean Arralderi deitu eta baietz esan zidan, ahalegina egingo zuela. Hunkigarria izan zen.

Beste hau berriz oso tristea izan zen. Durangoko alkateak deitu zuen Damian Lizaurren, bere bi alaben eta txoferraren heriotzaren berri emateko. Alkatearekin jartzeko eskatu zidan, baina Bergaran zegoen

Urbian 1924an ipini zuten telefonoa

Gipuzkoa aitzindaria izan zen telefono bidezko komunikazioaren garapenean, eta horren lekuko da, adibidez, 1924rako Ubian telefono publikoa ipini izana. Arantzazuko frantziskotarrek 1907an ipini zuten linea zuzena bertako komentua eta Oñatiko Iñarra etxearen artean, auzotarren eta hainbat oñatarrek emandako laguntzari esker. Gero, 1912an, Arantzazun telefono publikoa jartzeko oinarriak adostu zituzten lurraldeko arduradunekin, eta handik urte gutxira Hospederiara eraman zuten lokutorio publikoa.

Eta berandu gabe eraman zuten telefonoa Urbiaraino. Elizarekin batera, 1924ko irailaren 28an inauguratu zen Urbiako telefono publikoa. Hasieran, ermitan bertan ipini zuten lokutorioa, baina hurrengo urtean fondara eraman zuten.

TELEFONOA ARAOTZEN

Oñatirekin bateratsu jarri zen telefono publikoa Araatz auzoan ere. Udaleko artxibozainak eskuratu digun 1910eko batzar-egiri batean irakur daiteke, Gomendio jaunak eskatzen diola diputazioari instalazioa egin dezan Araotzen, auzoak 500 bizilagun zituela argudiatuta.

Martin Mendizabalek ‘Araatz. Albiste eta Ohiturak’ liburuan jasotzen duenez, Zumalde etxeko tabernan ipini zuten telefonoa; trukean, hilean 3 erreal jasotzen zituen ugazabak, eta 3 zentimo, baserrietara eramandako telefonema bakoitzeko. 1929an Urgain tabernara eraman zuen telefonoa udalak, eta 1960an Toki Eder etxera, Martin Coscojuela eta Consuelo Lopez senar-emazteen ardurapean. “Aitak etxetik kanpora lan egiten zuenez, amak izaten zuen zentralitaren ardura, eta neu ibiltzen nintzen errekadista lanean, abisuak baserriz baserri banatzen. A zelako ibilaldiak egiten nituen!” azaldu digu Jesus semeak. “Garai hartan hamabost bat baserritan egongo zen telefonoa, eta konferentzia bat nahi zutenean, gure etxera deitzen zuten, eta guk Oñatiko zentralitara. Gabonetan eta Trinitate jaien bezperatan, bereziki, ugaritu egiten ziren deiak”.

JESUS COSCOJUELA

Araatzeko telefono zentraleko errekadista



“Auzoan gora eta behera ibiltzen nintzen, telefono abisuak baserriz baserri banatzen; Gabonetan eta Trinitate jaien bezperatan ugaritu egiten ziren telefono deiak

eta parrokoarekin jarri nuen. Gero, Don Migelek famililako batenbati deitzeko eskatu zidan eta Luis Zulueta deitu nion, jakin barik bere emaztea ere, Maria Antonia, Damianen alaba, hildakoen artean zegoela. Kolpe handia izan zen.

Oñatin Munduko Ziklo Kros txapelketa jokatu zenean ere telefonoak sutan egongo ziren, ezta?

Garai hartan ni errekadista lanetan nenbilen eta, bai, mugimendu handia egon zen.



Munduko ziklo kros txapelketako irratikomunikazio guztiak telefono bidez egiten ziren

Egin kontu, gainera, irratikomunikazio guztiak telefono bidez egiten zirela. Herriko kale guztiak kablez josita egon ziren.

Kirol probak bakarrik ez; igandero Arantzazuko meza irratiz eman ahal izateko ere telefono bidez egiten ziren konexioak.

Nik gabaz lan egiten nuenez, Arantzazuko fraideek Gabonetan ospatzen zuten gauerdiko meza ipintzen zidaten telefonoz, eta nik Bergara, Arrasate eta Zumarragako telefonoistei pasatzen nien. ■



Madrileko telefono zentralaren ikuspegia, 1924an

Automatizazioa eta harien lurperaketa

Udal artxiboko batzar-agirietan ikusi ahal izan dugunez, udalak 1953an utzi zuen Telefonica-ren esku herriko telefono-harien sarea 28.764 pezetaren truke, eta 1959an egokitu zuen zentralita berria Lizaur kalean. Ordurako zerbitzuaren automatizazio lanak hasita zeuden.

1960ko hamarkadan kableak kanalizatzeko lanak egin ziren, eta 1973-74an Telefonikaren zentral berria eraiki zen Moia kalean, Sierben (Andre Mariaren Mirabeak) konbentua egondako orubean (600m²).

Bertan jardun zuen lanean Víctor Goñik ia hamabost urtez. Aurretik herriz herri ibilia zen telefono posteak instalatzen, eta 1960ko hasieran iritsi zen Oñatira, Telefonica-ko beste tekniko batzuekin (Luis López, Tomás Córdoba, Sotero...) batera, eta 1960ko hamarkada bukaeran egonkortu zen Oñatin. Garai hartan hasi ziren herriko etxe askotan telefonoak instalatzen eta Víctor berak egiaztatu behar izaten zuen linea ondo zebilela. "Dialean 0 zenbakia marka-tzeko eskatzen nien eta batzuek ez zuten asmatzen" gogoratzen du. Bestalde, kaleetan zanjak irekitzen hasi zirenean, jendea harrituta geratzen omen zen handik telefonoa joango zela jakitean.



Telefono posteak instalatzen jardun zuen Víctor Goñik



Eguraldi iragarpenak telefonoz

1916ko abuztuan nekazariak zuzendutako eguraldiaren iragarpen zerbitzua jarri zuen abian Foru Aldundiak. Igeldoko behatokiak arratsaldeko 7etan igortzen zuen iragarpena telefono zentraletara, eta horren berri kanpai bidez ematen zen herri bakoitzean; 3 kanpai hots, eguraldi ona; lau kanpaikada, ekaitza, eta bost, euria.

Gipuzkoa aitzindari telefonian

Gipuzkoa bide-urratzaile izan zen telefono bidezko komunikazioaren garapenean. 1986an hasi ziren aurreneko sareak instalatzen. 1908an Donostiako udalak hiriko sarearen titulartasuna lortu zuen eta diputazioak lurraldeko herriak telefono bidez lortzeko esku-bidea. 1917an ipini zuten Bergaran eskualdeko zentral nagusia.

Beste probintzia guztietan Telefonica-ren ardurapean zegoen sarea. Gipuzkoako egoera pribilagiatuak 50eko hamarkadararte iraun zuen.

1921ean 1.457 km. kable zegoen instalatuta Gipuzkoan eta, bataz beste, abonatu dentsitate handiena zuen 6. herrialdea zen Europa osoan. 1953an Gipuzkoa zen herrien arteko komunikazioa automatizatuta zuen lurralde bakarra Espainian.

EGUR-LAN
AROSATEGIA
LIÑABAR S.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL / FAXA: 943 78 14 59 limebaserla@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba

943 781 217
kale berria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

Oñatiko Ur Jauziak elkarteak bazkide berria izango du

‘ENERGIAREKIN’ kooperatiba

» 445.000 euroko ekarpena egingo du bazkide berriak eta %10eko partaidetza izango du » Oñatiko udala (%80) eta EEE/EVE (%10) dira beste bi bazkideak

GOIENER taldeko Energiarekin kooperatiba elkarteak izango da Oñatiko Ur Jauziak elkarteko bazkide berria, uztailaren 3tik aurrera. Energia berriztagarrien arloan konpromiso sendoa duen talde kooperatiboa da Goiener, eta elkarteak indartuko duela uste du Mikel Biain alkatea, Ur Jauziak elkarteko lehendakaria. “Babes instituzionala mantenduz, gihar soziala emango diogu elkarteari”

Zergatik erabaki du Ur Jauziak (OU) elkarteak bazkide berri bati atea zabaltzea?

Oñatiko Ur Jauziak elkarteak bi bazkide izan ditu sorreratik: Oñatiko udala eta Energiaren Euskal Erakundea (EEE/EVE). Eta elkartearen kudeaketa EEEK egin izan du (UZESA elkartearen bitartez) ia hogeita bost urte hauetan.

Baina orian dela hiru urte EEEK idatziz adierazi zigun Ur Jauziak elkarteak uzteko borondatea. Gu erabaki horren kontra egon gara beti, baina ikusita EEEren asmoa sendoa zela, hainbat neurri eta erabaki hartzen hasi ginen. Batetik, Ur Jauziak elkartearen kudeaketa osoa (kontabilitatea, nominak, aseguroak...) gure gain hartu genuen, eta, bestetik, bazkide berri bat bilatzeko prozesua, EEE-k utziko zuen hutsunea beteko zuena. Sektorea ondo

ezagutu eta, batez ere maila teknologikoan ziurtasuna eta emango zigun enpresa bat lortzea zen helburua.

Beraz, OU elkartearen %10aren balioa kalkulatu genuen, 2017ko abenduko balio kontablearen arabera, eta lizitazioa abiatu genuen 356.000 euroko balioarkein.

Energiarekin kooperatiba izan da interesa agertu duen enpresa bakarra, eta bera izango da bazkide berria. Nola baloratzen duzu?

Energia berriztagarrien arloan Euskal Herrian erreferentia den elkarteak da Goiener. Orain arte, energia garbia merkaturatzera bideratu du bere jarduna, baina hemendik aurrera energia berriztagarria ekoizten ere hasi nahi du; Nafarroan zentral txiki bat erosi du, eta Oñatiko Ur Jauziak elkartean sartzeko



MIKEL BIAIN

Alkatea eta Ur Jauziak elkarteko lehendakaria

Babes instituzionala mantenduz, Goiener-en bitartez gihar soziala ematen diogu Ur Jauziak elkarteari”

erabakia ere ildo horretan ulerttu behar da. Ekoizpen arloan inbertsioak egiteko propio sortu duen elkartearen bidez (Energiarekin koop. elkar-tea) sartuko da Ur Jauziak-en.

Azpmarratzekoa da, gainera, lizitazio prezioa nabarmen hobetu duela Goiener-ek, eta beraz, balorazio positiboa egiten dugu. Ideia eta proiektu berriak ekarriko ditu elkartera, eta, ikusten dugu, babes instituzionala mantentzeaz gain (Eusko Jaurlaritzak jarraitu egingo du EEERenbidez), Goiener-en bidez gihar soziala ematen diogula Ur Jauziak elkarteari.

Azkenean EEE/EVEk ere jarraitu egingo du Ur Jauziak elkartearen. Zer gertatu da?

Nire irakurketa da, EEE eroso sentitzen dela egoera berri honetan. Udalak elkartearen kudeaketa bere gain hartu ondoren, eta, ikusita, gainera, *Hidroholding* enpresarekin aholkularitza tekniko-juridikoa hitzartu dugula, Ur Jauziak elkartearen jarraitzea erabaki du EEE-k, kargarik suposatzen ez diolako.

Hirugarren bazkidea sartzeak nola eragingo dio Ur Jauziak elkarteari?

Epe motzera inbertsio batzuk egiteko aukera emango digu kapital hazkundeak. Aldiro aldiro egiten dira instalazioak berritzeak inbertsioak, baina 2016ko abuztuan auditoria eknikoa egin genuen, eta ikusi da inbertsio batzuk egin behar ditugula, batez ere automatizazio mailan.

Bestalde, Plan Hidrologiko berriak neurri zorrotzagoak ezartzen ditu erreken emari ekologikoari dagokionez, eta horiek neurtzeko ere inbertsio batzuk egin beharko ditugu.

Beraz, epe motzera inbertsioak egitea litzateke asmoa, eta aurrera begira ere proiektu eta interesgarriak abian jartzeko

Oñargi-ko lantaldea sendotu du udalak

Ur Jauziak elkarteaz gain, argindarraren sektoreko beste bi enpresa ere baditu udalak: *Oñargi* (argindar banatzailea) eta *Merkaña* (merkaturatzailea).

Merkaña-ren funtzioa gaur egun testimoniala da, CHCren bitartez saltzen baitu argindarra, eta aldiz Oñargik pisua irabazi du, Mikel Biain alkateak adierazi digun moduan. “Espainiako Energia Ministeritzak ordainsariei buruzko irizpideak aldatu ditu, eta argindar sarearen mantenua da orain saritzen dena. Zorionez, udala (Oñargi) herriko argindar sarearen jabe da, eta horri esker azken bi urteetan 800.000 eta 900.000 euro arteko erretribuzioa jaso dugu. Horregatik, Oñargiren egoera eta etorkizuneko erronkak aztertu ditugu LKSren laguntzarekin, eta lantaldea sendotzea erabaki dugu, ingeniari elektriko eta administrai baten lanpostuak eta gerentearen figura (barne promozioz) sortuta. Enpresari sendotasuna emango dio eta modu horretan berriro egiten dugu bai Ur Jauzien eta baita Oñargiren aldeko apustua ere”.



aukera izango dugu Goiener-en bidez; adibidez energiaren merkatuan ordezkari-tza lanak eginda, eta baita argindarra merkaturatzeari begira ere.

Ur Jauziak elkartearen diru iturri inportantea izan da hainbat urtetan udalarentzat, baina Energia Ministeritzak energia berriztagarriei aplikatzen zien sari edo primak kendu ostean jeitsi egin da errentagarritasuna. Nola ikusten duzu etorkizuna?

2014an azterketa bat enkargatu genion ATTEST enpresari udalak Ur Jauziak elkartearen egindako inbertsioaren errentagarritasunaren inguruan. Gogoratu, udalak 850 milioi pezetako mailegua eskatu zuela 1989an Olate, Lamiategi eta Tokilloko zentralak erosteko. Eta azterketaren ondorioa izan zen, 2014an bueltatu gabe

Goiener-en eskutik proiektu interesgarriak abian jartzeko aukera izango dugu, adibidez energiaren merkatuan ordezkari-tza lanak eginez



zegoela udalak egindako inbertsioa; alegia, errentagarritasuna edo ‘TIR’-a negatiboa zela.

Badakigu, hala ere, udaletxe bat izanik, ez dugula begiratu behar ikuspuntu ekonomikotik bakarrik, babestu beharreko onsare industrial inportantea dagoelako hor.

Baina, bai, errealitatea da, Energia Ministeritzak prima edo sariak kendu zituenetik, %60 jeitsi dela Ur Jauziak-en errentagarritasuna, batzaz beste. Gainera, Plan Hidrologikoak ezarritako neurriek ere podukzioaren jeitsiera ekarriko dute. Beraz, ziurgabetasun handia dago sektorean; 2016ko ekitaldiko balantzea negatiboa (60.000 €) izan zen lehen aldiz, eta iaz positiboa (210.000 €).

Guk energia garbia sortzen jarraitu nahi dugu, enpresaren ustiapen kontua positibo mantenduz.

Ekintzailetza sustatu



25 lagun
ari dira
parte
hartzen
Ideiak
Garatzeko
Programan

komunitatea sortuz

Udalak eta Enpresagintza fakultateak **'Oñatin Elkarrekin Ekin'** programa jarri zuten abian iazko azaroan, ekintzailetasuna sustatzeko asmoz. Ekintzaileen arteko komunitatea sortzea da helburua, elkarrengandik ikasi, elkarri lagundu eta denon artean sortzen diren ekimen eta negozioak aurrera eramanez ahal izateko. Besteak beste, Ideiak Garatzeko Programa antolatu dute, eta 25 lagunek dihardute bertan hamar proiektu lantzen.

Herriarren enpresa ekimenak aurrera ateratzen laguntzea izaten da udaleko Enplegu sailaren zereginetako bat, eta horretarako hainbat zerbitzu eta laguntza eskaintzen ditu: informazioa eta aholkularitza, Olaburuko bulego eta tailerrak erabiltzeko aukera, sortutako lanpostuengatikotako diru laguntzak...

Baina enpresa ekimenak eta ideia berriak sortzeko, pertsona ekintzaileak behar dira, eta horregatik, udala ahalegin

berezia egiten ari da azken urte hauetan ekintzaile kultura sustatzeko. Helburu horrekin sortu zuen, esaterako, *Cowork* gunea Olakuako dorrean.

Eta ekintzailetza sustatzea da, baita ere, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateak eskaintzen duen LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduaren helburua. Hamar urteko bidea egin du, jada, LEINN graduak, eta Oñatiko Enpresagintza fakultatea erreferente bihurtu

**Catalana Occidente**

Mikel Egaña Urrutia
Aseguratuak

Eskatu aurrekontua konprometzu gabe:

➤ Heriotza

➤ Autokak

➤ Elbitza

➤ Istripuak

➤ Ontziak

➤ Osasuna

➤ Etebiziak

➤ Aurrezvia

➤ Labormentza

Habiboo Moon 6, behe
600 16 79 04
mikel.egana@egantia.occidenteoccidente.com

**Almaraz**
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

da gazte ekintzaileen prestakuntzan.

'OÑATIN ELKARREKIN EKIN'

Beraz, helburu amankomunak dituztela ikusita, udalak eta Enpresagintza fakultateak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten azaroan, eta 'Oñatin Elkarrekin Ekin' egitasmoa jarri zuten martxan ekintzailetza sustatzeko asmoz.

Ekintzaile komunitate bat sortzea da 'Elkarrekin Ekin' programaren lehen helburua; Oñatin eta eskualdean dauden ekintzaileak identifikatu eta harremanetan jartzea, elkarri lagundu eta elkarrengandik ikastea, eta sortzen diren ideia, ekimen eta negozioak abian jartzen ahalegintzea.

Hasteko, Ekintzailearen Astea antolatu zuten udalak eta Enpresagintza fakultateko Mondragon Team Academy-k iazko azaroan. Gazteei eta herriko ekintzaile, autonomo, profesional, mikroenpresei zuzendutako saioak antolatu ziren, ekintzaileak erakarri eta, bide batez, beraien proiektuak garatzeko dituzten gabeziak eta beharrak ezagutzeko asmoz.

EKINTZAILEENTZAKO

TRESNAK

Ekintzaileek dituzten premiak ikusita, horiei erantzuteko hainbat ekintza antolatu dira 'Elkarrekin Ekin' programaren baitan.

Alde batetik, 18 eta 26 urte arteko gazteak motibatze eta ekintzailetza sustatzeko *Gookin*

(hurrengo orrira)

» Ideiak Garatzeko Programa



Proiektuak

1. Paddle-ean jokatzeko kirolgune bat
2. Diseinu grafikoko enpresa baten posizionamendua
3. Eltziako taberna-jatetxerako proiektua
4. Txanda elkarte biziberritzeko egitasmoa
5. Umeentzako produktuak saltzeko e-commerce ataria
6. Clown teknika enpresa arloan aplikatzeko egitasmoa
7. 3D inprimagailuak eta laser ebakitzaila bezalako teknologiaz hornitutako 'maker' gunea
8. Ile-apaindegi kontzeptu berria
9. Elikagai denda batean diferentzialak sartzeko aukerak

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnosk: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

Aran
Hernández

Zure ETXEA eguneratu, gubiarreko inbertsio
bati erabiliz bere salmenta edota alkatari erabiliz

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



izeneko tailerra burutu zen martxoan. Gazteek elkarrekin lan egin behar izan zuten, herrian dauden behar ezberdinentzako irtenbideak lantzen.

Bestalde, Komunitate Jardunaldiak ere antolatu dituzte hilean behin, gai ezberdinen inguruko ezagutza sakontzeko, hala nola: finantziario iturriak, bezeroekin harremana, digitalizazioa...

Horrez gain, aholkularitza eta mentorizazio zerbitzua ere eskaintzen da hilean behin, enpresa edo negozio txiki bat aurrera eramateko ezezagunak izaten diren arloetan laguntza emateko (legedia, fiskalitatea, kontratuak...).

IDEIAK GARATZEKO PROGRAMA

Formazioa eskaintzeaz gain, ideiak eta enpresa ekimenak garatzeko tailer praktikoa ere egin dute 'Elkarrekin Ekin' egitasmoaren baitan. Apirilean hasi eta uztailerarte 25 lagunek jardun dute negozio aukera berriak lantzen, edota martxan dauden enpresetan ideia berriak inplementatzeko aukerak aztertzen. Enpresagintzako tutoreen laguntzarekin ideia horiek kontrastatu, testatu eta bideragarriak ote diren aztertu dute.

Hamar proiektu ezberdin landu dituzte, eta helburua da horietako batzuk garatu eta gauzatzen laguntzea irailetik aurrera.



ELI CORREAS

"Txanda elkarteak indarberritzea da gure asmoa"

TXANDA elkartearen izenean ari gara parte hartzen ideiak garatzeko programa honetan. Elkarteak bera ikusgarri egin eta biziberritzea jarri dugu helburu bezala, eta hori lortzeko aukera ezberdinak aztertzen ari gara. Uste dugu beharrezkoa dela TXANDA bezalako elkarte bat, baina guk geuk sinistu behar dugu aurrea. Beraz, elkarte espiritua indartu eta benetako ekipoa osatzea da gure helburua, gero bezeroei zerbitzu hobea eskaini ahal izateko. Esperientzia oso ona izaten ari da; oso dinamiko eta aberasgarria da eta asko ikasten ari gara, proiektura begira eta baita pertsonalki ere.



VICTOR UGARTE

"Paddle zentro bat irekitzea da gure asmoa"

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza graduak azken urtea ikasten ari naiz, eta ikasketa amaierako proiektu bila nabilen, Gari laguntza eske etorri zitzaidan. Arrasaten paddle zentro bat irekitzeko asmoa du berak, eta proiektuaren bideragarritasun plana egiteko laguntza eskatu zidan. Gero, LEINN graduak ikasle bat ere batu da proiektura, eta hiruror artean ari gara lantzen. Esperientzia oso baliagarria izaten ari da; ideia finko edo itxi batekin hasi ginen, eta hemen ikasitako metodologiari esker proiektua egokituz joan gara, ate batzuk itxi eta beste batzuk zabalduz, eta prozesua behar bezala planifikatuz.



AGURTZE INZA

"Ile-apaindegia irekitzea da gure asmoa"

Ile-apaindegia interneten eta sare sozialetan posizionatzea zen hasierako asmoa, bezeroari erraztasunak emateko asmoz, baina programa honek ikuspegia irekitzen lagundu dit, eta zerbitzu berriak eskaintzeko aukera aztertzen ari naiz. Bezeroen beharrak zein diren aztertu ondoren, eta kontuan hartuz denbora dela gaur egun dugun gauzarik preziatuenetako bat, zerbitzu berriak eskaini nahi ditugu ile-apaindegian (manikura, sentsazio mahaia...), bezeroak eroso egoteko eta ez sentitzeko denbora galtzen ari direla. Bide batez, norbaitek proiektu honetan parte hartu nahi badu, utz dezala kurrikuluma Adela ile-apaindegian.



Elkarlanean jarraitzeko borondatea

Udaleko Sozioekonomia sailak eta Enpresagintza fakultateko *Mondragon Team Academy*-ko ordezkariak postiboki baloratu dute 'Elkarrekin Ekin' egitasmoaren orain arteko ibilbidea. "Komunitatea sortzea da aurreneko helburua, eta, poliki poliki, lortzen ari gara. Parte hartze maila uste baino handiagoa izan da antolatu ditugun jardueretan, eta konpromiso maila handia erakutsi du jendeak. Gainera, oso aberasgarria da hamabostean behin ekintzaileak batzea eta elkar ezagutzea. Dagoeneko sortu dira sinergiak eta lankidetzak proiektu berriak, eta hori da lortu nahi duguna. Jendea hasi da beldurra galtzen, eta badaki hona etorri gero, espazioak eta bitartekoak dituztela ideiak eta proiektuak aztertu eta garatu ahal izateko. Lehenengo saiakera izateko, balorazioa positiboa da, eta bide horretan sakondu nahi dugu".

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaituguncz, Arratsaten bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbideta, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com

RPS. 71/18. Zuzenoki medikoa. Miquel Gabarra / Kioagatu zka. 202006106



Kubako txoko oñatiarra

La Habana hiriburuan duakan ostatuari 'Oñati' izena ipini dio Consuelo Torresek

Eguzkia garesti dago aurten gurean, eta, beraz, eguzki bila irtetea erabaki dugu, Karibe aldera, Consuelo Torres kubatar-oñatiarraren eskutik. Izan ere, 'Oñati' izeneko ostatu bat dauka bere sorterrian, Habana hiriburuan, eta berau ezagutu nahi izan dugu.

El Vedado izeneko auzunean dago Oñati ostatua, leku pribilegiatua. Bi kale baino ez dauka Malekoiraino, eta bost minutuko paseotxo bat eginez iritsi-ko gara alde zaharrera.

"Habanako auzo politiko-administratiboa da *El Vedado*" azaldu digu Consuelok; "kubatar dirudunak bizi ziren bertan iraultzaren aurretik. Gune turistikoa da, eta aldi berean oso lasaia".

1924an eraikitako etxe baten behe solairuan dago 'Oñati' ostatua. Consuelok eta bere alabak berritu zuten gustu handiz dotorezia eta modernotasuna konbinatuz, argazkietan ikusten den moduan, eta eraikina-
ren izaera errespetatuz.

Ohe-biko lau logela ditu ostatutak. El Vedado izeneko auzoan dago, Malekoitik eta alde zaharetik oso hurbil

Ohe-biko lau logela ditu ostatuak, guztiz ekipatuta: bainu partikularra, aire girotua, telebista, logelako edaritegia, kutxa gotorra... Terraza-lorategi bat ere badago, iturri baten inguruan; ilunabarretan goxo egoteko leku aproposa.

Bezeroentzako egongela bat ere badu ostatuak, erropak garbitzeko gela ere bai, eta nahi izanez gero, sukaldea erabiltzeko aukera ere badu bezeroak. "Gosari ederrak ematen ditugu, eta bezeroak nahi badu, baita bazkari eta afari zerbitzua ere. Dena den, han inguruan etxe pribatu asko daude jaten ematen dutenak; *Paladares* izenez ezagutzen dira, eta oso ondo ematen dute jaten, prezio onean" azaldu digu Consuelok.

DESKONTUA OÑATIAARENTZAT
Logelaka edo etxe osoa alokatzeko aukera eskaintzen du Oñati ostatuak. Ohe-biko logela batek 30 € inguru balio du eguneko, baina Oñatiko bezeroek deskontua dute (25 € eguneko). Izan ere, Consuelo oso eskertuta dago Oñatiko herria-



rekin. “Orain dela hamasei urte iritsi nintzen Oñatira, eta oso gustura nago bertan. Jendeak oso ondo hartu nau eta, gainera, Oñatik eman dit lana egiteko eta proiektu hau aurrera ateratzeko behar nuen dirua aurrezteko aukera. Asko zor diot Oñatiri, eta ostatuari Oñati izena ipintzea, esker ona adierazteko modu bat da”.

KUBA EZAGUTZEKO AUKERA

Ostatu emateaz gain, Kuban barrena bidaiaitzeko aukera ere eskaintzen du Oñati ostatuak. “Bezeroak esaten digu Kubako zein toki ezagutu nahi duen eta

zenbat egun pasa nahi dituen bertan, eta geuk koordinatzen diogu dena, gurea bezalako etxe partikularren sare baten bidez”.

Kubako beste edozein hotelek adinako zerbitzu eta konfort maila eskaintzen du Oñati ostatuak. Gainera, etxeko sentiara-ziko gaitu eta Kubako egunerokoa hurbiletik ezagutzeko aukera emango digu. “Dagoneko oñatiar bat baino gehiago egon da gure ostatuan, eta pozpozik etorri dira. Beraz, Kuba ezagutu nahi duten herritar guztiak gonbidatzen ditut Oñati ostatutik pasatzera” esan digu Consuelok.

“Asko zor diot Oñatiri. Lana egiteko eta proiektu hau aurrera ateratzeko aukera eman dit, eta ostatuari Oñati izena ipintzea esker ona adierazteko modu bat da”



Duela 17 urte iritsi zen Consuelo Oñatira.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea

Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTIAN KOMPONKETAK

PERSIANAK, LERRIAK, LUR FLOTANTEAK, ARRIAK, PINTURA LANAK...



DISEÑATZALE ETA MONTATZALEA

SERVICIO DE MANTENIMIENTO Y REPARACIÓN

OLAKUA 12 B 4 ed. - 20090 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

> **PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK / 500.000 €** zertan gastatu erabakitzeko prozesua

58 proposamen 3. faserako

» Orain proposamenen bideragarritasuna eta aurrekontua aztertuko dute udaletxeko teknikariek

» Aurrera egiten duten 30 bat proposamenen artean bozkatu beharko dute herritarrek urrian



Udal Aurrekontuetako 500.000 € bi urtetan (2019-2020) zertan gastatu herritarrek erabakitzeko prozesua 3. fasean sartu da. Guztira 376 proposamen egin zituzten herritarrek (horietatik 109 oso antzekoak). Udal talde politikoek egindako balorazioaren ostean 105 proposamen kanpoan geratu ziren, arrazoi ezberdinak tarteko: udalaren eskumenekoak ez direlako; proposamen bakoitzarendako gehieneko aurrekontua (120.000 €) erraz gainditzen dutelako; 2018ko aurrekontuetan jasota daudelako; edota

irizpide politikoengatik.

Aurrera egin zuten proposamenak lehenesteko hiru bilera egin ziren ekainean, eta herritarren aldetik puntu gehien jasotako 58 proposamenak pasa dira hirugarren fasera.

Orain, udaletxeko teknikariek aztertuko dute proposamen horien bideragarritasun teknikoa eta aurrekontua, eta aurrera egiten duten proposamenen artean (30 bat izango dira) bozkatu beharko dute herritarrek urrian 4. eta azken fasean.

HIRUGARREN FASERA IGARO DIREN PROPOSAMENAK

BERDINTASUNA

- Oñatiko Emakume Txokoa / Etxea martxan jarri
- Berdintasun plan osatuagoa landu.
- San Prudentzioko autobus geltokian beldurra pasatzen dute emakumeek. Autobusak ez daude koordinatuta.

HEZKUNTZA

- Herritarren konpetentzia digitala garatzeko formakuntza saioak.
- Herriko ikastetxeek proiektu bateratuak egitea, integrazioa eta bizikidetzat lantzeko.

KULTURARTEKOTASUNA

- Programa sozial gehiago: aniztasuna lantzeko, intergenerazioak...
- Unibertsitatera datozen atzeritarrekin kulturak partekatzeko jardunaldiak antolatu (hitzaldiak, bilerak, bazkariak...).

ZERBITZU ETA AZPIEGITURAK

- Plazako arkupeetako zuloak konpondu.
- Herriko iturriak hobetu.
- Jarlekuak ipini Eltzian, Ugarkalden, Olakuan, arboledan...
- Komun publikoa ipini kanposantu ondoko bidegorrian, Torreauson, Otadui zuhaitzian, Asentzio-Olabarrieta aldean, Kalegoienan eta Ugarkalde-Eltzian.
- Auzo-bideetan argia ipini: Irubietatik Olabarrietara, Ugarkalden...
- Zebrabideak hobeto argitu.
- Bizikletentzako estalitako aparkalekuak ipini kiroldegian eta eraikin publikoen inguruan.

HAUR ETA GAZTEAK

- 16-18 urteko gazteentzako txokoa egokitu gaztelekuan, beraientzako aktibitateak antolatuz.
- Porterixa mugikor batzuk egotea Gaztelekuan.

AISIALDIA

- Ugarkaldeko haur parkea estali.
- San Martingo haur parkea estali
- Haur parkeren batean 6-14 urte arteko aktibitateak ipini (sokak...).
- Rokodromo baxu bat ipini plazako frontoi inguruan.
- Olakuako saskibaloia guinea txukundu eta argiak ipini

KIROLAK

- Atletismo pista Urrutxun, edo bestela San Martin egokitu horretarako.
- San Martingo parkea txukundu korrika egiteko.

MUGIKORTASUNA

- Natra paretik Santa Lutzaraino oinezkoentzako bidegorria egokitu.
- Autoen errepideen ondoan dauden bidegorrietan (Olakua) segurtasun barandak ipini.

- Torreausotik Zañarturako erreka ertzeko bidea berreskuratu oinezkoentzat.
- Errepideak asfaltatu herri osoan.
- Munazategi eta Azkonitza arteko bidea asfaltatu eta bi farola ipini.
- Murgia auzoko lur-jausia konpondu.
- Goiena parkineko autoen sarrera-irteeran, haurrentzako arriskuak ekidin.
- Azkoagainen aparkalekua egokitu.
- Martzelino Zelaia kalea oinezkoentzat egokitu.
- Bizikleta, patinete eta antzekoendako trafiko arauak ezarri.
- Komunikazio egokia Murgia auzoan.

IRISGARITASUNA

- Mendiko Kaleko zorua konpondu.
- Espaloi zaharrak eta estuak konpondu.
- Olakuako 3-7 eta 10-16 atarietako espaloiak konpondu.
- Kale Zaharreko (Lizaur kaletik behera) espaloiak konpondu.

EUSKARA

- Oñatiko euskararen kalitatea hobetzeko, ikastetxeekin adostu, maila jakin bateko ikasleek ikasturte oso bat

oñatieraz egin dezaten Batuaz egin beharrean.

- Pertsonen zaintza arduratzen diren herritarrek elkarrizketatu, zerbitzua hobetu eta esperientziak ezagutzera emateko.

ONGIZATEA

- Emakume etorkinentzako harrera etxea.
- 3. adineko pertsonen jarduerak fisikoa egiteko instalazioak eta programak.
- 3. adinekoentzako etxe komunitarioak.
- 3. adinekoentzako etxe tutelatuak.
- Helduentzako aktibitate gehiago, ezinduak ahaztu barik.

INGURUMENA

- Oñatiko erreka urbano guztien azterketa integrala egitea (historia, bilakaera, ondarea) eta hiri kalitatean duen papera indartzeko gidalerroak finkatu.
- Errekalde errekan arnasgune pare bat zabaldu, konpost gunea dagoen zelaian eta plazoleta ostekoan.
- Mendietako bidezidorrak garbitu eta mantendu.

- Kale Zaharretik Kasablankaraino herrigunea biziberritzeko plana.
- Baso publikoetan zuhaitz autoktonoak landatzea.
- Aloña ziarreko kardu-latz izurriteari aurre egitea eraginkortasunez.
- Espezie inbaditzaileak (Fallopia, heliantus...) erauzi.
- Antxiñako bideen inguruko azterketa bat egitea, berreskuratze aldera.
- Kaleko katuak antzutu eta koloniak kontrolatu.

HONDAKINAK

- Zakarrontziak ipini Foruen plazan, Etxaluzen, Goienan, Olaiturrian, Kale Zaharrean, Errementari plazan...
- Hondakinen ontzi edo kuboak haizeak ez eramateko neurriak ipini.
- Hondakinak lurrera ez botatzeko kontzientziazio kanpainak egin.
- Lekutik kanpora dauden kartel, pankarta, pintura etab. kentzeko prozedura eta taldea. Sentsibilizazioa herria garbi mantentzeko.

Ostalaritza establezimenduen inguruko ordenantza onartu aurreko kontsulta publikoa jarri du abian udalak

Uztailaren 20arte egin daitezke ekarpenak

Udal ordenantzen lanketa eta onarpenean herritarren parte hartzea bermatu eta sustatzeko asmoz, Administrazioen Prozesura Lege berriak agintzen die udalei, edozein arau onartu aurretik kontsulta publikoa ireki behar dutela, afektatuen eta gai horretan zeresana izan dezakten herritarren eta erakundeen iritzia ezagutzeko.

Beraz, udalak ostalaritzako establezimenduen jarduna arautuko duen ordenantza berritzeko asmoa duenez, kontsulta publikoari hasiera ematea erabaki du, gai horren inguruan zeresana duten herritarrek bidezko jotzen dituzten ekarpenak egin ahal izateko. Horretarako propio udalaren webgunean (www.oñati.eus) egokitu den gunean egin daitezke ekarpenak, edo idatziz, udaletxeko erregistroan, uztailaren 20ra arte.

EAJren udal taldeak egotzi dio gobernu taldeari gai honen inguruko parte hartze prozesu bat antolatu ez izana, afektatutako alde guztiekin (bizilagunak, tabernariak...).

Uraren ziklo osoaren kudeaketa hitzartu du udalak Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin

Aho batez onartu du udalbatza uraren ziklo osoaren kudeaketa Ur Kontsortzioaren esku uztea hurrengo hamar urteetarako. Horrek esan nahi du, herritarrok Gipuzkoako Ur Kontsortzioari ordainduko diogula uraren tasa, azken hamar urteotan bezala, eta trukean Ur Kontsortzioak 2,8 milioi euroko inbertsioak egingo ditu Oñatiko ur sarea hobetzen eta, gainera, milioi bat euro pasatxo ordainduko dio udalari esku dirutan.

Adin txikikoen denboraldi baterako harrerarako diru laguntza deialdia

Garapen bidean dauden edo hondamendia jasan duten herrialdeetatik datozen adingabeen denboraldi baterako harrerarako diru laguntza deialdia egin du udalak. Oñatin erroldatuta eta bertan bizi diren familietara datozen adingabeen harrera kostuak arintzera zuzenduko dira laguntzak (joan-etorriak, aseguruak, osasun zerbitzuak...). Helburu horrekin lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarte juridikoen bidez emango dira diru laguntzak. Eskerak aurkezteko azken eguna, uztailak 13.

BERDINTASUN

KONTSEILUA



sortzeko parte-hartze prozesua antolatu du udalak

Herritarrez osatutako **Berdintasun Kontseilua** sortzeko prozesu parte-hartzeilea jarri du abian udalak, EH Bildu eta EAJren oniritziarekin. Berdintasun arloko udal politiken gidaritzak markatuko duen talde sendoa bat egituratzea da helburua.

Lehendik ere antolatzen du udalak berdintasunaren aldeko ekimen ugari (Jabekuntza Eskola, ikerketa bekak, indarkeria matxistaren aurkako kanpainak, sexu ahokularitza zerbitzua...), baina Berdintasun sailak beharrezkoa ikusten du horien inguruko gogoeta egitea. Gainera, herrian eragiteko gaitasuna garatu nahi bada, beharrezkoa ikusten da behetik gorako erabakimen logikarekin bat egingo duen egitura bat sortzea, eta hori da, hain justu, herritarrez osatutako Berdintasun Kontseiluaren bidez lortu nahi dena.



Ekainaren 30ean egin zen aurreneko saio irekia

Proposamenak egitea, egindakoak ebaluatzea, emakumeen saretzea sendotu eta sinergiak sortzea, eta berdintasuneko gidalerroak finkatzea izango da kontseiluaren egitekoa, baina erabaki gabe dago oraindik zer nolako osaera eta funtzionamendua izango duen.

Horretarako da, hain zuzen, udalak abian jarri duen parte hartze prozesua. Joan den larunbatean egin zen aurre-

neko saioa. Beste herri batzuetako (Hernani, Azpeitia, Errenteria...) esperientziak ezagutzeko aukera egon zen bertan, eta oporren ostean (irailean, urrian eta azaroan) beste hiru saio egingo dira, Oñatiko Berdintasun Kontseiluaren oinarriak, izaera eta funtzionamendua erabakitzeko. Prozesu horretan adosten dena loteslea izango da. Beraz, udalak dei egiten die herriko emakume guztiei prozesuan parte hartzera.



ETXiAN
Oñatiko inmobiliaria berria

Donostian etxea prosteko ere, aukera onenen informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net

Etxian f



carpintería GARIBAI aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Udaldia Oñatin



> Irailaren 9rarte **sorosle** zerbitzua egongo da Usakon, egunero (15:00-20:00).

> **Herribusak** bi joan-etorri egingo ditu Usakora; Ugarkaldetik 16:00etan eta 19:30etan abiatzen diren zerbitzuak.

TURISMO BULEGOA

'OÑATIKO ALT XORRAK' (Unibertsitatea eta Parrokia)

Bisita gidatuak. Uztaileko larunbat, igande eta jai egunetan, 13:00 eta 17:00. (4€/p.). Bestelako egunetan bisitak aurrez eskatuta (943783453 / turismo@onati.eus).

ERTAROKO SAN MIGEL ERROTA

Egunero (9:30-19:00) San Migel errota martxan ikusteko aukera. Uztailearen 8an (10:30) bisita berezia: 'Errota martxan, labea bero bero' (3€/p.). Erreserba egin behar da.

ARRIKRUTZ-OÑATI KOBA

ORDUTEGIA Egunero (9:30-19:00) '53 Galera' bisitatzeko aukera. Erreserbak: 943082000 / arrikruz@onati.eus.

BISITA BEREZIAK

- Espeleo Txiki: uztailak 15, 29, eta abuztuak 4,12 eta 18 (15:30).
- Espeleo-Arrikruz: uztailak 22 (9:30)
- Geoibilbidea Araotzeko bailaran: abuztuak 26 (9:30).

TXOKOLATEIXIA

Bisita gidatuak. Abuztuan egunero 12:00etan. Bisita gidatu programatuak 18:15ean. Erreserbak: 605763595.

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Bisita gidatuak. Abuztuan egunero: 10:30 (cas), 11:30 (eus), 12:30 (cas), 16:00 (eus) eta 17:00 (cas).

ARANTZAZUKO PARKETXEA ETA NATUR PARKEA

ORDUTEGIA Asteartetik ostiralera (10:00-14:00 / 16:00-18:00). Asteburu eta jai egunetan (10:00-14:00).

BISITA BEREZIAK 'Aloña ilunabarrean' mendi irteera uztailaren 21ean (18:00), Arantzazuko Adiskideen Elkartearekin.

POTTOKALEKU

Euskal Pottoka behatzeko bisita bereziak. Erreserbak: 670274461 / jelorzarza@hotmail.com / www.pottokaleku.com

GOMIZTEGI BASERRIA

Baserri-eskolara bisita, esnekien dastaketa, artzain txakurren erakustaldia... Erreserbak: 943251008 / info@gomiztegi.com

Bezzeroen beharrei
erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6
Tlf.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasosores.com

www.gualbiasosores.com

Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Bernat Alberdi

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.: 943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Eskerrik asko Oñati, milla bider!

Jerardo Elortza

Samurra da azkeneko hillabetiotan Segin eta erakutsi dostazuenagatik berba banaka batzuekin nere esker ona agerketia. Baiña ondo baiña hobeto dakit horrek eztauela iñondik iñora enpastaitten zuekin, danokin, dakoten zor haundixa eta gozua. Izan be, eneben sekula pentsauko horrenbeste lagun, aixkide eta herritarren kariña neregantuko nebenik. Era askotako pertsonak emun dostai zorionak, euren maittasuna azalduaz.

Pozik nago, benetan: batetik, nere lanak burutu eta publikau ahal izateko euki doten laguntasun eta erraztasunengatik, instituzio nahiz informatzaille soillen aldetik; eta bestetik, nere ekarpentxuak uste baiña estimaziño haundixagua izan dauela konturatu naizelako. Antolatutako jardunaldi guztietan jente asko ibili dala ikustia pozgarria izan da, jakiña, eta aurrera jarraiketako inddarra emuten dost, ahal doten bittartian. Milla esker eta besarkada estu bat danoiri!

Oñatiko herriari

Oñatz Dantza Taldearen izenean, Jon Irizar

B Ez ditugu berehalakoan ahaztu-ko 2018ko Korpus Jaiak. Ilusioz ekin genion duela hiru urte beharrezkotzat sentitzen genuen aldaketa prozesuari, tradizioa gaur egungo gizarte errealitatera egokitzeko bideari. Orduetik zenbat gogoeta, zenbat bile-
ra, zenbat proba, zenbat entsegu.

Egubakoitz goizeko urduritasun eta emozioak negar malko eta poztasun besarkada bilakatu ziren igande arratsaldean. Une errepikaezinak bizi izan ditugu. Normaltasuna izan da lehen egunetik ahoan izan dugun hitza, eta normaltasuna izan da Oñatiko herriaren aldetik jaso dugun erantzuna.

Begiak betetzen zaizkigu zenbaezinak diren animo hitz, babes keinu eta zorion mezuak gogoraraztean. Idatzi honen bitartez eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, herritar guztioi. Eta nola ez, baita modu batera edo bestera prozesu guztian babesa eskaini diguzuen laguntzaile sare osoari ere.

Halaber, besarkada estu bat eman nahi dizuegu 47 urtez Oñatzen parte izan zareten emakume guztioi; nola dantzari, hala sortzaile, laguntzaile, jostun, irakasle, txistulari edo zaintzaile guztioi. Izan zaretelako baikara, eta garelako izango baitira.

Urrats garrantzitsu bat eman dugu Oñatzen bidean, baina bideak aurrera darrai. Aupa Oñatz!

Zorionak eta eskerrik asko!

Xabier Gesalaga eta Eli Ordorika.
Oñatiko Gure Esku Dago

A ste batzuk pasatu dira ekainaren 10eko giza katetik, eta oraindik iraun egiten digu egun eder hartako biharamun gozoak. Zorionak eta eskerrik asko; horixe esan nahi genizuen Gure Esku Dagok deitutako giza katean parte hartu zenuten denoi. Zuen denon eskuak batuta, 175.000 izan ginen Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu eta gure etorkizuna erabakitzeke arra-

zoiak Eusko Legebiltzarreraino eramane genituenak. Horregatik, zorionak eta eskerrik asko. Zuen, gu denona, da Euskal Herrian zein nazioartean halako oihartzuna eduki duen arrakastaren ardura. Pauso bat gehiagore eman dugu. Berriak etorriko dira, eta hor egongo gara berriz, oraingoan moduan. Eskerrik asko! Zorionak!

Oñati udan: ez dago kanpoko igerilekurik

Amaia Erostarbe eta Marijo Etxegoien, EAJren udal taldea

Iritsi da uda, eta, oporrak hartu berri, Oñatiarrak Ugarkaldeko ur-txorroten gunera, kiroldegiko igerilekura eta Usakora hurbildu dira, urarekin freskatzeko eta gozatzeko. Eta gune horiek, egun, nahikoa al dira udan Oñatin? EAJ-PNVren udal-taldearen iritzian, ez.

Ugarkaldeko ur-txorrotak beteta egon dira egun hauetan, batez ere umeekin eta gaztetxoekin. Horren harira, ezin da ahaztu herriko hiru gunetan ur-txorrotak jartzea proposatu zuela EAJren udal-taldeak 2016ko aurrekontuetarako, inguruko herrietako proiektuak eredu hartuta. Hain zuzen, plazako pilotaleku inguruan, San Martinen eta Olakua-San Lorentzo-Ugarkalde eremuan jartzea proposatu genuen. EH Bilduren udal-gobernuak ez zuen onartu EAJren proposamena orduan; aitzitik, 2017. urtean jarri ditu ur-txorrotak, komunik gabe, Ugarkalderen paisaiaren barruan eta 500.000 € ordainduta. Esan daiteke, beraz, EAJren ideia bereganatu eta garestitu egin duela EH Bilduk. Izan ere, proiektu hori ingu-

ruko herrietan baino dezente diru gehiago kostatu da Oñatin: esaterako, Antzuolan, 200.000 € inbertitu da eta badago komuna; Eibarren, 382.000 €, komun eta guzti; Mallabian, 95.000 €...

Bestalde, kiroldegian ez dago kanpoko igerilekurik, eta barrukoa txiki geratu da. Hura handitzeko proiektuak ez du aurreikusten kanpoan igerilekurik egiterik. Horren harira, gogoratu behar da kanpoan igerilekua egitea proposatu zuela EAJren udal-taldeak, bai 2016ko, bai 2017ko aurrekontuetarako, Oñatin, Arrasaten, Azpeitian, Bergaran, Elorrioren, Lazkaon, Urretxun... bezala. Gainera, behar-beharrezkoa ikusten dugu Oñatin aisialdigunea ere egitea. Hau da, kanpoko igerilekuarekin, ur-jolasekin, ur-txorrotekin, mahaiekin... hornitutako gune bat aldarrikatzen dugu, Mendaroko proiektuaren antzekoa. Oñatin Usako ere badaukagu, baina ez da irisgarria. Herritar batzuentzat ez da samurra Usakoraino joatea, iazko udatik Herribusa ibili arren EAJren udal-taldeak eskatuta. Gure iritzian, Usakok ez du kanpoko igerilekua ordezkatzen.

Oñatin ba dago nahikoa eskaintza familiak, aita-ama, nerabeak, gaztetxoak... udan aisialdiaz aire zabalean gozatzeko? Gure ustean, ez.

Euskaraldia aurrera!

Inazio Arregi, Oñatiko Euskaraldiko Batzordearen izenean

Euskaraldiko Oñatiko talde eragileak eskerrak eman nahi dizkie herriko hamaikakoaren aurkezpen-ekitaldira bertaratu ziren guztiei, eta, noski, azaro amaieran eta abendu hasieran egingo dugun jarduera kolektiboari bultzada emateko bere irudia eta izaera eskainiaz hamaikakoa osatu duten emakume-gizonei: Eider Quintas, David Vernaza, Ana Mari Liziaga, Euxebi Osa, Xabier Infante, Markel Irizar, Irati Barrena, Itziar Altuna, Josu Zubia, Nieves Gomez eta Oihana Diaz.

Foru Enparantzan ospatutako aurkezpen-ekitaldia jendaurreko lehen jarduera izan da, baina beste batzuk ere etorriko dira herria girotu asmoz. Ekintza guztietan eta bereziki udazkenean ospatuko dugun Euskaraldian parte hartzera gonbidatzen ditugu oñatiar guztiak.

OHARRAK, DEIALDIAK ETA AZKEN ORDUKOAK

GARAGALTZA AUZOKO TXAPELKDUNAK

Urtero bezala, San Juan egunaren bueltan ospatu dituzte jaiak Garagaltza auzoan. Auzo-bazkaria, ume jolasak, mus txapelketa (argazkian daude irabazleak) eta erromeria larunbarean. Igandean berriz meza auzotarrek dotore apaindutako elizan, eta luntxa bertaraturako herritar guztientzat.



ALOÑA TABERNAN SUKALDARIA BEHAR DA

Interesa duten pertsonen kontaktuan jartzeko datuak bidali alonamendi@gmail.com posta elektronikora edo tabernan utzi.

GARAGARDO AZOKA, UZTAILAREN 12tik 15era

Hilaren 12tik 15era egingo da Aloña Mendi kirol elkartearen XII. Garagardo Festa plazako jolaslekuan, ohi bezala. Ostegunean eta ostiralean 19:00etatik aurrera egongo da zabalik, eta larunbat eta igandean eguerditik aurrera.

Oñati, denboraren oinatza

Elene Leturiaga, Elkar Heziko DBH 2ko ikasleen izenean

Oñati, denboraren oinatza kale-erakusketa izan dozue ikusgai herriko hainbat txokotan duela egun batzuk. Hau, 3.evaluaketan zihar esku artian izan dogun proiektuaren emaitza izan da. Prozesu interesgarria bezain exigentia, lan intentsua eskatu doskuna. Ekimena kaleraketiak jare doskun zaporria ordia, gazi-gozua izan da.

Herrigintza, ondaria, errespetua eta alkarlana moduko kontzeptuek agua beteten doskuen garai honetan, herrikide batzuek, hitz-huts bihurtu dittue terminuok.

Bagilaren 15ian jarri gittuan landutako panelak herrixan zihar. 5 minutu besterik ez eben iraun gune batekuak, paretan pegau ahalaz bat, gazte kuadrila batek barria mosutik ezin kenduta eta “Ezin dogu apurtu ala?” galderiak ixu gure mutur aurrian kendu eben eta (aillegau giñanerako eskutan eukain, eta txipiketan hastiar euzen).

Hau lehenengua izan zan. Jarraixan herriko beste leku batzutan be, bridekin lotutako panelak kenduta edota apurtuta agertu dira egun gutxittan.

Hau da 14 urteko gazte batzuek, herrixari egingindako ekarpen xumiaren aurrian, merezi dogun erantzuna? Hau da errespetua, herrigintza...?

Geldittu gaittezen baiña irabazi dogunarekin: adin eta belaunaldi desberdinetako herritarrak, alkarrekin panelak irakurri eta, bakoitzak, kale, auzo edo argazkixan agerketan zan irudixaren inguruan, modu naturalian, ekixena, ondoko herritarrarekin komentaiten ikustiak bete-betian erakutsi dosku proiektuaren helburua bete dala.

Denboraren oinatza balixo izan dau, alkarrezagutza bultzatu eta aurrerantzean be, bestien esperientziatik abiatuta, urrats barrixak emuteko, oñatiar izatiaren eraikuntza sinbolikuan.

Eskerrik asko Izar Salaberri, Xabi Zelaia, Artixa taldea eta bidia samurtu doskuzuen danoiri.



IKASTURTE AMAIERA

Kurtsoa amaituta oso balorazio positiboa egiten dugu bai ludotekatik eta baita txipistin programatik ere. Urtero bezala herrian eta ludotekan hainbat ekintza egin ditugu, hala nola, Aste-Santutako eta gabonetako ekintza bereziak, ludoteka ibiltaria, ipuin kontalaria, familiekin Arrikurtzetako kobatarak... Eskerrak eman nahi dizuegu urte guztian zehar antolatutako ekintzetan parte hartu duzuen haur, gazte eta familia guztioi. Izan ere, zuek barik ezinezkoa izango litzateke ekintza guztiak aurrera eramatea, mila mila esker!

Zerbitzu hauei agur esan diegu, iraila arte behintzat eta amaiera polita izan dugu bi zerbitzuetan:

>> **Txaloka ludoteka:** Ikasturtea borobiltzekoa, Arrikurtzeko kobetan egon ginen ludotekako haur eta familiekin batera. 50 pertsona inguru izan ginen bisitan, giro ezin hobean.

>> **Bertakotzeko haur eta gazteak:** Bertakotzeko gaztetxoak Lasturren izan ziren asteburua pasatzen eta bertan hainbat ekintza egin zuten: paintball, debako ondartzan... Bertakotzeko haurrak berriz, aurten ere Gamarrako igerilekutara joan ziren.

Orain, udaleku irekiei eman diogu ongi etorria. Aurten 581 haur egongo dira bertan, inoizko kopururik altuena. Eta hurrek, euskaraz jolastuz, lagunartean ondo pasatzeko gunea izango da. Guzti hori kudeatzeko asmoz 62 hezitzaile, 4 koordinatzaile eta Haur eta Gazteria Teknikaria izango gara Gaztelekuan, uztailearen 2tik 27rako goizetan.

Milesker guregan jarritako konfiantzagatik!!



- Arazerixan -



OMENALDI EDERRA ETA HUNKIGARRIA. Santa Ana aretoa lepo beteta, kantu, bertso, poesia, dantza eta hitz ederren artean burutu zen Jerardo Elortzaren omenaldi ekitaldia ekainaren 9an. Herriaren alde, eskuzabaltasunez eta apaltasunez egindako lanaren aitortza eta esker ona jaso zuen Elortzak, kultura astea borobilduz. Ekitaldi ofizialaren ostean talde argazkia atera zuten, eta ondoren 170 lagun bildu ziren bazkaltzeko.



Kirola guztiontzat. Kirolaren balio integratzailea aldarrikatu nahi izan du Abixaran taldeak aurtengo Torreazuko krosean. Hala, *Montes Solidarios* taldearen laguntzari esker, Urdin Mendiola gazteak lasterketan parte hartzeko aukera izan du. Danera 158 lagunek parte hartu dute, eta Aitor Mimenza (24:17) eta Gurutze Frades (28:09) izan dira azkarrenak.



Ohorezko bazkide.

Eusko Ikaskuntzak ohorezko bazkide izendatu zuen Oñatiko herria ekainaren 2an Oñatin egindako mendeurreneko batzar berezian. Ehun urteko ibilbidean Oñatik erakundeari eskaini izan dion harrera eta babesa eskertu nahi izan dio Eusko Ikaskuntzak modu honetan.

San Martin auzoan 'Baratzeko Pikua' jolas gunea egokitze lanak lizitaziora.

San Martin auzuneko 18 eta 20 etxe blokeen artean hutsik dagoen orubean haur eta gaztetxoei zuzendutako jolas gunea egokitze lanak lizitaziora atera ditu udalak. *Lur Paisajistik* S.L. enpresak idatzitako proiektuaren arabera, jolas gunen alternatiboa egokitu da bertan. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 135.942 € (+BEZ).

Duruko eguna, uztailaren 29an

Uztailaren 29an ospatuko da bi urtetik behin egiten den Duruko eguna. Goizeko 11etan hasita, meza, salda beroa, pintxoak, herri kirol erakustaldia eta aterpeetako kalejira egingo da, festa giroan. Bazperan, ume jolasak egongo dira, 17:00etan hasita: mendi bizikleta lasterketa, futbola, txokolatada...



COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 • oñati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus



Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Diru laguntzen gestioa-igogailuen proiektuak -Barne dekorazioa-Jarduera lizentziak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

Aloña Mendiko korrikalariak goi mailan



Denboraldi amaiera bikaina egin dute Aloña Mendiko korrikalari gazteek. Hala, Kade de mailan, Igor Mugarzak Euskadiko txapelketa irabazi du 1.000 metrotan (2'46") eta Gipuzkoako 1.500m-ko hesidun lasterketan. Gainera, proba honetan Euskadiko selekezioa ordezkatu zuen Espainiako txapelketan, 12. sailkatuz.

Bestalde, 1.500m-ko distantzian bi azpitxapeldun izan ditugu: Eric Martin Junior mailan, eta Beñat Guridi Jubenil mailan.

Emakumezkoak ere ez dira atzean gelditu. Hala, Nahia Lasagabaster 2. sailkatu da 3.000m-ko Gipuzkoako txapelketan, eta Malen Saiz 3.a izan da 300 eta 600 metroko distantzietan.

Pozik egoteko moduan daude Jabi gomez eta Mikel Quelle entrenatzaileak.

Bestalde, Marisol Ramosek zilarrezko bi domina lortu ditu Espainiako Master txapelketan, 1.500 eta 5.000m-ko probetan.

Pilotariak sasoiko



Uxue Oses eta Maialen Etxegarai bikoteak Santo Domingo de la Calzadako txapelketa irabazi du. Horrez gain Oses Uharteko eskuz banakako eta Lakuako eskuz binakako txapelketak ere irabazi ditu, sasoi bikainean dagoela erakutsiz. Ander Biain ere Lakuan nagusitu da Enaitz Azpitarterekin bikotea osatuz.

Asteburuko irteera Picos del Infierno

Uztailaren 14-15ean, Aloña Mendik antolatuta. Larunbatean goizeko 6etan abiatuta, Panticosatik Bachimañako aterpetxerako ibilaldia egingo da, eta igandean Picos del Infierno (3.080m.) igoko dute. Kranpoiak eta pioleta derrigorrezkoak dira (Aloña Mendin ere eska daitezke). Prezioa: 60€ (ez bazkideek 70€, ikasle eta langabetuek 50€). FEDME txartela ez daukanak 10€ gehiago ordaindu behar du aterpetxean. Prezio barruan daude aterpetxean lo egitea, afaria eta gosaria.

Uztailaren 10a da izena emateko azken eguna (alona-mendi.mendi@gmail.com). Federatuta egon behar da.

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



DOMINA UGARI ALOÑA MENDIKO IGERILARIENTZAT. Oso maila onean aritu dira Aloña Mendiko igerilariak Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan. Azpimarratzekoa da, gainera, **Ainhua Redinek** Espainiako txapelketako minima lortu duela 100 Bizkarrean. Gipuzkoako txapelketari dagokionez, **Redinek** bi domina lortu zituen 50 Bizkar (2.) eta 200 Bizkarrean (3.); **Nerea Diazek** hiru domina 50 Bizkar (3.), 100 Bizkar (3.) eta 50 Tximeletan (2.). **Sara Isasisasmendik** ere hiru domina 200 Krol (1.), 100 Krol (2.) eta 100 Bizkarrean (3.); **Aitor Tatiegik** 2 domina 50 Bular (1.) eta 100 Estiloetan (2.); **Kepa Aldekoak** ere bi domina 200 Bizkar (2.) eta 100 Bizkarrean (3.); **Aitor Diazek** 50 Tximeletan (2.) eta **Josu Barrenak** 100 Bizkarrean (1.) bana; **Irati Delgadok** bi domina 200 Bizkar (2.) eta 200 Estiloetan (3.); **Enaitz Sagastak** hiru domina 100 Bizkar (2.), 200 Bizkar (3.) eta 200 Estiloetan (2.) eta **Ekhi Lazkanoiturburuk** bat 200 Bizkarrean (3.). Taldekako 4x100 Estiloetan bigarren sailkatu ziren **Ainhua, Nerea, Sara** eta **Maria Murgiondo**. Bestalde, Euskadiko txapelketan **Ainhua Redin** 3. sailkatu zen 50 Bizkarrean, eta brontzezko domina bana lortu zuten baita ere **Aitor Tatiegik** 50 Bularrean, **Ekain Gogoñonek** 400 krolean eta **Sara Isasisasmendik** 100 krolean.



XABI MURGIONDO Euskadiko txapeldun

Denboraldi hasiera latza igaro zuen, erorketen ondorioz, baina bigarren zatia bikaina egiten ari da Ampo taldeko Xabi Murgiondo txirrindularia. Ekainaren 17an Afizionatu mailako Euskadiko txapelketa irabazi zuen eta egun batzuk lehenago bigarren sailkatu zen Gipuzkoako erlojupeko txapelketan. Horrez gain, Castellón jokaturako Espainiako txapelketetan ere parte hartu zuen Euskadi ordezkatzuz, eta meritu handiko 7. postuak lortu zituen bai erlojupeko proban eta baita iraupenekoan ere. Bigarren urtea du Afizionatu mailan Aloña Mendin hazitako txirrindulariak.

Erostarbe eta Casais, sasoi betean

Aimar Erostarbek Euskadiko txapelketa irabazi du kadete mailan. Gipuzkoakoan, Danel Casais 2. sailkatu zen eta Aimar 3. Bestalde, Casaisek Tolosako saria ere irabazi du.



Kantoikrit uztailaren 14an



Uztailaren 14an jokatu da Oñatiko VII. Kantoikrit, pinoi finkodun bizikleten kriteriuma, herriguneko kaleetan, gaueko 10etan hasita. Txirrindulariek 15 bira emango dizkiote 1,5 km.-ko zirkuitoari (24 km.). Izen ematea www.sailkapenak.com webgunean. (www.kantoikrit.com).



Jokalariak: Miriam Uzki, Itxaso Egaña, Onintza Olabarria, Amaia Beitia, Beatriz Arabaolaza, Olatz Korkostegi, Arantzazu Urzelai, Ana Hernandez, Saioa Martinea de Arenaza, Maite Sainz, Cristina Soares, Izaro Elorza, Miren Galdos, Oihana Iriondo eta Miren Blain.
Entrenatzailea: Iñaki Cantero. **Delegatua:** Juani Alzelai

Duela 20 urteko balentria

> Aloña Mendiren kadete mailako eskubaloia taldea hirugarren sailkatu zen Espainiako txapelketan

Aloña Mendiko eskubaloia sailaren historiako lorpen garrantzitsua izan zen, bereziki emakumezkoetan. Iñaki Canterok zuzentzen zuen taldeak brontzezko domina lortu zuen estatuko kadete mailako txapelketan, Mallorkan jokaturako azken fasean.

Euskadiko txapelketa irabazi ostean, Aloña Mendik Vigon jokatu behar izan zuen Espainiako txapelketako lehen fasea, *Rasoeiro* etxeko taldea eta *Leganes*-en aurka. Galiziarrei 11-7 irabazi eta madrildarrekin 7na berdinduta, Mallorkako azken fase-rako txartela lortu zuen Canteroren taldeak.

Estatuko 8 talde onenak batu ziren Mallorkan, bi multzotan banatuta. Malaga eta Salamancako ordezkariak irabazi eta kanariarren aurka galduta, finalerdietarako sailkatu zen Aloña Mendik. Beste multzoan nagusitu zen Valentziako *Ferrob* Mislataren aurka galdu zuen finalerdia (13-11) partidua gogor eta parekatu baten ostean. Azkenik brontzezko domina lortu zuen Aloñak, *Getasur* mendean hartuta kontsolazioko finalean.

Balentria handia egin zuen Aloñak, Euskadiko talde bat Espainiako txapelketako finalerdietara iristen zen lehen aldia baitzen, kadete mailan.





adibide bat



Etxerako zerbitzua
OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDEAK 19:30ETATIK AURRERA
* gutxienezko eskeiera 8€. Oatmeal zerbitzua 14€ kobratuko da.
Ondakizterakoan, kreditu bakiak sartzen dira.



LAPIKO GORRI
GASTROTEKA

ULTZEGIN 11, OÑATI • Tel. 943 50 20 70 •   



Lanerako gertul

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2018-2019

» Oñati gestio heziketa

MGEP

MONDRAGON GOI ESCOLA POLITÉCNICA
10011 PAMPLONA (ARABIA) - 48940 LEZAMA (LEIZO)

75

75 ANIVERSARIO DE LA ESCUELA POLITÉCNICA

Matrikula

Uztailaren 12-13-16-17-18

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
• Administrazioa eta Finantzek • Zuzendotza Idazkaritza • Salmenta Kudeaketa • Nezioarteko Merkataritza	• Sistema Elektrotécnikoen eta Automatizazioak • Automatizazioa eta Robotika Industrial • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua • Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa • Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/ogh
ngarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592








Hungaria konkistatzera

Béla Bartók lehiaketan parte hartuko du **Ganbara Abesbatzak** uztailaren 5etik 8ra

Aitor Biainek zuzentzen duen Ganbara Abesbatzako kideak Hungariako Debrecen hirian daude, asteburuan (uztailaren 5etik 8ra) ospatuko den *Béla Bartók* Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte hartzen.

Europako Abesbatzen Sari Nagusia osatzen duten sei lehiaketatako bat da, Tolosa, *Arezzo* (Italia), *Tours* (Frantzia), *Maribor* (Eslovenia), eta *Varna*-koarekin (Bulgaria) batera.

Lehiaketa hauetako irabazleek Europako Sari Nagusian parte hartzen dute hurrengo urtean.

Béla Bartók (1881-1945) musikagile hungariar handiaren izena darama lehiaketak, eta badu berezitasun bat, izan ere, musika garaikideko sariketa baita; hau da, *Bartók* hil zen urtetik honako obrak interpretatu behar dituzte abesbatzek.

Estatu Batuak, Turkia, Irlan-



Aitor Biain saria jasotzen, iaz Tours-en

“**AITOR BIAIN BIDARTE** / Zuzendaria

Lehiaketak perfekzioa esijitzen digu, eta horren bila egiten dugun lana oso aberasgarria da

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Urmeen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

GANBARA ABESBATZAREN palmaresa

2017

3. saria Tours-en (Frantzia).
Frantziar abesti baten
interpretazio onenaren saria

2016

1. saria Burgoseko XV Certamen
Nacional Antonio José.

2015

2. saria Arezzon (Italia),
ahots nahasietan eta musika
garaikidearen kategorietan

2014

- Sari nagusia, Ejea de los
Caballeros-eko (Zaragoza)
estatuko abesbatzen lehiaketan

2013

3. saria polifonien eta folklorean
Spittal-en (Austria)

2013

1. saria Ejea de los Caballeros-
en (Zaragoza)

2012

1. saria Villa de Aviles
nazioarteko lehiaketan

2012

- Sari nagusia, 1. saria polifonien
eta 2. saria folklorean
Berriobeitin (Nafarroa)

2011

2. saria San Vicente de la
Barqueran (Kantabria)

2008

1. saria Villa de Aviles lehiaketan

2008

- Sari nagusia eta Habaneretan 2.
saria, Torreviejan (Alacant)

2006

5. saria Tolosako nazioarteko
lehiaketan

2006

4. saria eta entzuleen saria
Maribor-en (Eslovenia)

2004

- Sari nagusia Rojalesen (Alacant)

2004

1. saria Concentainan (Alacant)

2003

1. saria, entzuleena eta
derrigorrezko obraren
interpretazio onena
Concentainan (Alacant)

da, Danimarka eta Errusiako abesbatzak lehiatuko dira Ganbararekin batea, ahots mistoen sailetan. Halakoetan esaten den moduan, kategoria honetako lehiaketa batean parte hartzeko hautatua izatea bera sari bat da jada, baina Ganbarak ez dira horrekin konformetzen, eta sariren bat irabazteko ilusioarekin doaz, Aitor Biain zuzendariak aitortu digunez. “Programa zaila eta potentea daramagu, baina oso gustura nago egin dugun lanarekin, eta gogotsu gaude. Ondo defendatuko dugula uste dut”.

SASOI ONEAN

Taldea ere oso une onean dagoela uste du zuzendariak. “Taldea sartu diren gazteak integratzeko lan berezia egin dugu, eta uste dut oso maila onean gaudela, afinazioan, enpastean, interpretazioan.... Baina, jakina, hau lehiaketa bat da, oso maila handikoa, eta ondoen abesten duenak irabaziko du”.

Palmares bikaina dauka Ganbara Abesbatzak, eta ez dauka ezer demostratu beharrik, baina honelako lehiaketak eragingarri eta pizgarri direla esan digu Biainek. “Lehiaketak esijitzen digu musikarekiko perfekzioa, eta horren bila egiten dugun lan guztia oso aberasgarria da taldearentzat. Gainera, bidaiatzea, munduko beste abesbatza batzuekin batera abestea eta hor ematen den elkarbizitza ere oso polita izaten da”.

Lehiaketan parte hartzeaz gain, nazioarteko folklore erakustaldian ere parte hartuko du Ganbara Abesbatzak. *Maitegoak* (X. Sarasola), *Hiru damatxo* (A. Alcaraz) eta *Mendekoste phestetan* (J. Bello Portu) abestuko dituzte. Eta, jakina, turismo pittin bat egiteko eta Budapest inguruak ezagutzeko ere baliatuko dute bidaia.



Uztaileko asteazkenetan musika **Kalean**

Musika estilo ezberdinez eta espazio irekietan gozatzeko aukera izango dugu uztailean zehar, udaleko kultura sailak prestatu duen *Kalean* egitarauaren eskutik. Ekainean izan dira aurreneko bi ekitaldiak (Musika Eskolako kontzertua eta Ganbara Faktoriaren ‘Euskal Mitologia’ ikuskizuna) eta orain, uztaileko asteazkenetan kontzertu bana egongo da. Azken ekitaldia, familiei zuzendutako kale-ikuskizuna, irailaren 2an izango da.

> **UZTAILAK 4 / Lazarraga lorategian, 19:00**

Gari & Maldanbera

> **UZTAILAK 11 / San Lorentzoko ermitan, 19:00**

Vientos de Saudade fado kontzertua

> **UZTAILAK 18 / Lazarraga lorategian, 19:00**

Juan Valls abeslari oñatiarra

> **UZTAILAK 25 / Atzeko kalen, 19:00**

Lindsay Beaver Kanadako musikaria

> **IRAILAK 2 / Errementari plazan, 19:00**

Zirika Zirkus, ‘Ondoren’



Lindsay Beaver abeslari eta bateria kanadiarrak bere rock&roll, soul, punk eta blues doinuak eskainiko ditu

AGENDA

07

UZTAILA

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



ODOL ATERALDIA

> UZTAILAK 13 / 17:00

Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

DOKUMENTALA

> UZTAILAK 15

'Mairuelegorreta; iluntasunetik argitasunera'

Gorbeia mendian dagoen Mairuelegorreta kobazuloan 1963tik burutzen den Euskal Jaia buruz Mikel Ezkerrok gasteiztarrek egindako ikus-entzunezkoa ikusi eta egilearekin solasean aritzeko aukera egongo da. Antixena Gaztetxean



MENDI IRTEERA

> UZTAILAK 14

KOBAZULOETARA

Kobazuloetara mendi irteera Antixena Gaztetxeak antolatuta

'Ventos de Saudade' fado kontzertua

> UZTAILAK 11 / 19:00

San Lorentzoko ermitan

Fadoak, Portugalgo kantu tradizionalak abesten dituen Soroluzeko Ventos de Saudade laukoteak kontzertua eskainiko du San Lorentzoko ermitaren aurrealdean, udaleko Kultura sailaren 'Kalean' egitarauaren barruan. Domenetx Uzin *gitarra* portugaldarra, Jon Basauri *gitarra*, Ane Ugalde *flauta* eta Arianne Unamunok *ahotsa* osatzen dute taldea.

LITERATURA

> UZTAILAK 18

LITERATUR SOLASALDIA

'Azala erre' liburuaren inguruko solasaldia Danele Sarriugarte egilearekin Antixena Gaztetxean

KONTZERTUAK

> UZTAILAK 18 / 19:00

JUAN VALLS



'Kalean' egitarauaren baitan Juan Valls-en country, folk eta blues doinuak Lazarraga lorategian

> UZTAILAK 19 / 19:30

DOMEKETARROK

Oñatiko musika taldearen kontzertua Lapiko Gorri tabernan




> UZTAILAK 20 / 19:30

DOMEKETARROK

Oñatiko musika taldearen kontzertua Helmuga tabernan

> UZTAILAK 25 / 19:00

LIINDSAY BEAVER



Abeslari eta bateria jole kana-diarraren rock, soul, punk eta blues doinuak Atzeko Kalen

IKASTAROA

> UZTAILA

MUSIKA TEKNIKARI

Musikari teknikari ikastaroa egingo da uztaila bukaeran (eguna zehazteke) Antixena Gaztetxean

BATUAK S.L.

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



JAIXAK

> TRIANAKO JAIXAK

Uztailak 6. 19:00 Astotrasto-ren jeitsiera; 19:30 Txorimalo eta erraldoiak; 19:30 Presoen aldeko elkarretaratzea; 20:00 Pintxo potia txosnan; 22:00 Kontzertuak; 00:00 -topau ki-diak eta tragua doan; Ordu txikittan helduentzako marrazki saiua. **Uztailak 7.** 11:00 Umientzako marrazki saioa; 12:30 Supituki, inprobisazio saioa umeentzat; 15:00 Ilinti kafea; 16:00 Mus txapelketa; 17:00 Ur-pistola gerra; 19:00 Txorimaloak; 22:00 Kontzertuak. **Uztailak 8.** 12:30 Meza Benediktinetan eta luntxa Goiena plazan; 15:00 Auzo bazkaria; 19:00 Potx eta Lotx; 21:00 Xolonporen omoeneko traka.

'ADIO' DANTZA IKUSKIZUNA

> ABUZTUAK 23 / 19:00 Arantzazuko santutegian

Donostiako Musika Hamabostaldiak antolatuta, Errenteriako Kukai dantza taldeak 'Adio' ikuskizuna eskainiko du Arantzazuko basilikako espaziora egokituta. Abesbatza, pianoa eta poesia izango ditu lagun Kukai taldeak, eta gogoan izango dituzte Bitoriano Gandiaga eta Iñaki Beristain. Sarrerak www.quincenamusal.eus atarian eskura daitezke.

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



BIBLIOPORRAK GIDA

adinka sailkatutako liburu gomendagarrien gida argitaratu du udal liburutegiak.

HELDUEN LIBURUTEGIA UDAN

Uztaila: 10:30-13:00 / 16:30-20:00

Abuztua: 10:30-13:30

Larunbatetan itxita,

HAURREN LIBURUTEGIA UDAN

Uztaila: 10:00-13:00

Abuztua: Itxita

Haurren txokoa egongo da helduen liburutegian

MERKATU TXIKIA

> **ILEAPAINAZAILEA** behar da, esperientziaduna, berrirekitzera doan ileapaindegi baterako. Harremanetarako: 637036195 (Agurtze) / a.intza@hotmail.es

> **ALOKATZEN DA** apartamentua La Manga del Mar Menor-en bihotzean, hondartzatik 200 metrora. Behe-solairuan, terraza eta bi logela. Ez da beroa. Aisialdirako gunean dago; supermerkatua, famazia... 630255831 (Rocio).

> **SALGAI** hiru balkoi oso, bi atekoak, haritz egurrezkoak, Climalit kristal bikoitzekoak. Neurriak, balkoi osoa, itxita, ate biek: 1,05 m. (zabalera) x 2,06m. (altuera). Kalitate onekoak. Prezio negoziagarria. Deitu: 656 710 411.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16

Uztailak 9, 10, 16, 18, 20, 21, 22, 24, 26, 30 eta 31.

IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22

Uztailak 11 eta 12.

GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58

Uztailak 5, 13, 14 eta 15.

JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28

Uztailak 6, 7, 8, 17, 19, 23, 25, 27, 28 eta 29.





MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletelneus.es

caravanas




25 URTE **oñate**

• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50
www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

ANTIXENA

Antia abizena etxe horretako leinuan txertatu aurretik, **Urtazatarrak** genituen hango maiorazkoak. Eta Antiatarren ondorengoen artean **Hurtado de Saratxo, Martínez de Morentin** eta **Altunatarrak** aurkitzen dira; denak senideak, noski. Horregatik *Saratxorena* ere deitu izan zaio. Ez da familia horretako kideen artean agintari eta kargudunik falta izan: adibidez, **Asensio Urtaza**, XVII.eko alkate famatua, edota **Santos Antia**, Orbaizeta (Nafarroa) eta Sargadelos-eko (Lugo) arma-fabriketako zuzendaria. Duela hamarkada batzuk, unibertsitate zaharrean Lege Soziologiako Nazioarteko Institutua jarri zenean, erakunde horretako zuzendari, irakasle eta ikasleen egoitzatarako egokitu zuten Antixena, jatorrizko bere tankerari eutsiz.



Argazkia: Oñatiko Historia eta Arte bilduma

MADINABEITIA

MOIUA

Etxe horretatik hurrean **San Juan** ebanjelariaren ermita zegoen, Pedro Puerto Hernani, Unibertsitateko katedradun ospetsuaren aginduz XVI. gizaldian eraikitakoa. **Ermita** horren harrizko ate-

burua, inskripzio luze batekin, Moiuatarren etxearen sotoan aurkitzen zen eta, azken obrak burutzerakoan, kultura etxeko lorategian kokatu zuten.

Etxea Garaitarrek erosi zuten, eta bertan bizi izan ziren Juan Garai Mendia eta bere familiakoak gure goguenan. Geroago, 1980 hamarkadatik aurrera, ordurako udalaren jabetzakoa izanik, **hainbat zerbitzu publiko atondu ziren eraikin horretan**. Hasiera batean, aparteko egokitzapenik egin gabe, **udaletxea aldatu zen hara** Foruen Enparantzako kontzejua obretan egon zen bitartean. Hauek amaitzean, 1984.ean **lehenbiziko kultura etxea** egituratu zen bertan: liburutegia, fonoteka, hitzaldi-gela, Oñati Irratia, Kontzejupetik aldizkaria eta abarrekin.

XXI. mendearen hastapenean, **eraikina barrutik erabat hustu eta gaur egungo kultura etxearen instalazio berriak** prestatu zituzten, Angel de la Hoz arkitektoaren proiektuaren arabera: liburutegi nagusia, haurrena, zine-aretoa, erakustokia eta beste gela batzuk daude bertan. **Kanpotik lehengo itxura mantendu du**, aurreko eta atzeko miradore politekin.

BARUEKUA

Plaza eskuin aldetik mugatzen duen eraikin luze honek jasan du, bai, aldakuntzarik XX. gizaldian. Hasieran, etxe bakar gisa, **Areizagako baroiaren egoitza izan zen XVII-XIX. mendeetan**. Hortik datorkio, jakina, *Baruekua* izena etxeari. **Areizagatarrak** Urretxuko jauntxoak ziren, baina Oñatin ere bazituzten ondasunak eta interesak. San Migel parrokian ere ikus daiteke haien izena idatzita, Santa Marinaren erretaula 1864an eliza nagusi horretara eraman zutenean, ermitaren patroia moduan agertzen direlako. Xabier Munibe, Peñafloidako konde famatua, 1747an Oñatiko parrokian Maria Josefa Areizaga, baroiaren alabarekin, uztartu zelarik, Baruekuan sinatu zuten ezkontza-kontratua.

XX. gizaldian bilakaera gorabeheratsua izan zuen: lehenengo urteetan Nevers-ko moja frantsesek okupatu zuten etxearen zati



Argazkia: Oñatiko Historia eta Arte bilduma

Antixena eta Madinabeitia jauregiak 1980 aldera.

bat. Gerra ostean Goribar, Torreauzo, Garibai eta Larrañako arotz batzuek tailerra ipini zuten etxepean; elkarrekin hasieran, bakoitza bere aldetik gerora. Bitxikeria moduan esan dezagun aroztegi horietako batzuetan gauzatu zela 1954-1955ean Oñatin egin zen **zurezko OKU belodromoa**, Reyes Korkostegi eta Bizen-te Ugarteren ekimenez.

Sasoi bateko jauregiak, tamalez, ez zuen iraun, ezta kanpotik ere, jatorrizko eitearekin: goiko erdialdea eraitsi eta estilo nahiz altuera desberdineko etxebizitzak jaso ziren 1970 aldera, plaza-ren batasun estetikoak desitxuratu. Botatzeko geratu den zatian azpimarratzekoak dira **puntu erdiko arku**a duen atea plazarantz, eta XIX.eko bi arku-ilara neoklasikoak bidegurutze estu horretan.

Badira kale ugariaren elkargune den plaza garrantzitsu honetan nabarmentzea merezi duten beste hainbat eraikin eta elementu: esate baterako, eskolak, iturria edota idi-probetarako harriak. Hurrengo kapituluan mintzatuko gara horietaz.


TABERNA • JATETXEA
 Bidebarrieta 6
 Tel.: 943 71 62 96
 20560 OÑATI

FAGOR
 INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

KONTU KONTARI



Behixakin araan

Lezesarriko baso kontuak

Lezesarriko andra-gizon batzuk familixarik ez ekuain, eta betik ibiltten ziran basuan, soruan, eurak lehenengo lanian; estee... boldaan eta... betik ibiltten ziran, gabian lana egitten euen, eta goizian jaikitten ziran, ba, auzoko mutillak, Murgikuak eta, joo!

Batek esaten otsan bestiari:

— *Lezesarriko horreikin amorratu eragindda gagozak, betik goizian gu jaikitterako bolda-sailla egindda, eta gero aitta hasarre egoten dok eta ...*

— *Zuena be bai? Baitta guria be!*

Hala ei zan Murgialdain, eta Jargikuan, eta danian. Eta, bueno, pentsau euen behin: "*gizon horri susto bat emun bihar txaugu*" Bi mutil gaztek, batek hartu dau danboliñian brasia eta bestiak hartu dau katia bat, burdi-katia bat, eta, bueno, hi alde batetik eta ni bestetik. Bixak juntau dira eta batak esaten otsan:

— *Judas, Judas!*

Bestiak erantzuten otsan:

— *Zer bihar dau, Barrabas?*

— *Soroan dabillen gizon hori hanketatik helduta infernura tataras!*

Danboliñari buelta eragitten otsan: tarraa! Eta bestia katiakin: ran-ran-ran...!

— *Judas, Judas!*

— *Zer dio, Barrabas?*

Gero, ba, erantzuten eben mendi guztiak:

— *Zer dio, Barrabas?*

— *Horko soruan dabillen gizon horri hanka bittatik helduta infernura tataras!*

Ta behixakin ebillen gizonori, Lezesarrikuori, geldittu da, entzun dau danboliñaren zaratia: tarraa!... eta brasia gorri-gorrixa, eta gabaz. Bestia katiakin. Bixok isil-isillik. Lerakua eta behixak hartu dittu eta etxera, arnasestuka. Etxera fan da ta... andriak:

— *Zer pasaitten xatzu, gizona?*

— *Zer pasaitten xaten? Beste mundukuak etorri dira hona, beste mundukuak, Judas eta, eztaikit zein...*

Ohian sartu gizona, eta hiru egunian uhetik jaiki barik. Harrezkero, gabetan sekula ez eben urteten lanera. Hori gure aittajunak kontaitten eben. Pasautakua da!

Itturrixa: Murgialdaiko Maritxu Altube Irizar (1929-2014)



Emakume dantzari oñatiarrak

Aurtengo Korpusetan emakumiak beste urte batzuetan baiño protagonismo haundixagua euki daue. Batetik, lehenengo aldiz neskak be parte hartu daue dantza-jardun guztietan, bezperan nahiz Korpus egunian: santu-karriuan, elizan, prozosiñuan edota arratsaldeko ekiñaldixan. Eta bestetik, emakume batek apostolu jantzitta urten dau prozosiñuan, hau be estraiñekoz. Hori dala eta, pozten gauen komentarixo positibuak entzun izan dittugu: “Oñatin beste leku batzuetan baiño problema gutxiago xagok emakumiak herriko jai eta gauzetan parte hartzeko orduan”, adibidez.

Gaiñera, dantzarixen haritik tiraka, batzuk gogoratu dira sasue batian neskak be ikasi zittuaila Korpusetako dantzak. Ez prozosiño ofizialian urteteko, lartxo garai hareittarako, baiña bai beste jaialdi eta erakustaldi batzuetan jarduteko. **Gerra osteko hamar-kada luzietan neskekin osotutako dantza-talde bat baiño gehixago egon zan Oñatin**, Alejandro Irizar dantza-maixuaren ardurapeian. Orduko agintarixak, *Coros y Danzas* izeneko erakunde folkloriko-politikuaren bidez, urte askuan babestu zittuain estaduko dantza desberdiñak emakumiai erakusten osten taldiak.

Gaurko argazkixan agiri diranak Oñatin Korpus-dantzak eginddako lehenengo neskak dittugu; 1944-1945 inguruan. Gipuzkoako txapeldunak izatera aillégau ziran eta Madrillen bigarren sarixa atara euen. Gehixenak ezagutu dittugu eta banaka batzuk bizi dira orainddiok. Goittik behera eta ezkerretik eskumara ondorengo honeik dittuzue:

Goiko illaran: Juanito Aldanondo, txistularixa eta argiduna; Maixabel Aranguren, *Txartesena*; Maria Pilar Egaña, Bakardade Ama kaleko *Ankaluzena*; Alejandro Irizar, *Auntzola*, dantza-maixua; Gregori Ugarte, San Antue kaleko *Larrastegikua*; Milagros Erle, Kanpatxoko *Erlena*; eta Tomas Uribarri, *Danborrerotxo*.

Beheko illaran: Maritxu Zarketa, Kale Barrikua; Nati Ibarrondo, Foruen plazakua; Bixenta Arregi, Santa Marinakua; eta Irene Aranburu, Patrue kaleko *Miel Kapaiñena*.

J. E.

Fotografixia Edurne Arregik eskuratutakua da, eta argibidiak Edurne berari, Maribel Korkostegi, Joxe Arregi eta Bittori Anduagari zor dostegu. Milla esker danoiri!



ULMA GARA

Gara

ULMA GARA, OÑATI GARA

iragana, oraina eta etorkizuna elkarrekin